

Balio Proposamena

Gure enpresak bezeroei umearen behar desberdinetara egokitutako jostailuak eskaintzen dizkie. Ume bakoitza desberdina dela badakigu, eta horregatik ohikoz kanpo dauden jostailuak ekoizteaz arduratzen gara, eta horiei esker gozatzen eta ikasten dute.

Kantitate handitan ekoizten duten gainerako jostailu enpresetatik bereizten gaituena gure produktuen eksklusibotasuna da, eskaintzen dugun hori ume bakoitzaren beharretara egokituta baitago. Horrez gain, zerbitzu bereziak eskaintzen ditugu, hala nola, jostailuak pertsonalizatzen ditugu ume bakoitzaren gustura. Zerbitzu horretaz baliatuta, umeak bere jostailuak gainerakoengandik bereizi ahalko ditu.

Produktu zehatzak ekoiztu ez ezik, produktu horiek kantitate handitan sortzen ditugu bezero guztiak asetzeko. Lehiakide gutxi ditugunez, eskaintza handia dugu eta horregatik produktuak kantitate handitan sortu beharra dugu. Modu honetan, haien behar guztiak asetzen ditugu.

Jostailuak bi eratan eskura daitezke, bai denda fisikora etorritz edota online-dendan erosten.

